

TITULARRAK	ADIERAZLEAK			
- Uztailean 198.170 afiliatu zeuden Bilbon, ekainean baino -% 0,9 gutxiago. Zerbitzuetan 1.884 enplegu galdu dira (-% 1,0). - Uztailean erregistratutako langabeen kopurua 21.006 pertsonara igo da, hau da, aurreko hilabeteko datuaren aldean 548 langabe gehiago. - Kontratazioak -% 2,4 egin du behera urte batetik bestera. Kontratutako pertsonak % 2,6 gehitu dira. - Bizkaiko txikizkako merkataritzak urte arteko % 2,9ko hazkundea izan du salmentetan bigarren hiruhilekoan. - Bilboko hotel-establezimenduen, apartamentuen eta aterpetxe turistikoen jarduera turistikoak, guztira, 163.352 bidaiari-sarrera eta 332.097 gaualdi izan ditu. - Bilboko aireportuan 806.402 bidaiari erregistratu dira uztailean; hortaz, % 16,8ko gorakada egon da 2025eko hilabete berarekin alderatuta. - Bilboko Portuko salgaien garraioa -% 10,4 murriztu da uztailean.		Azken data	Δ Urte artean (%) *aurreko aldia	Azken data
	Lan-merkatua			
	Afiliatutako biztanleak (kop.)	198.170	-0,9*	Uzt.
	Erregistratutako langabeak (kop.)	21.006	2,7*	Uzt.
	Erregistratutako kontratuak	12.881	-2,4	Uzt.
	Merkataritza			
	Txikizkako merkataritza: salmenta-indizea (2021 urtea = 100 oinarria)	116,2	2,9	II. HH
	Turismoa (hotelak eta apartamentuak)			
	Bidaiarien sarrera (kop.)	163.352	5,1	Uzt.
	Ostatu-gauak (kop.)	332.097	9,8	Uzt.
	Batez besteko egonaldia (egunetan)	2,03	4,1	Uzt.
	Ekonomia eta enpresak			
	Etxebizitza libre berria (€/m²)	5.272,2	5,1*	I. HH
	Bigarren eskuko etxebizitza (€/m²)	3.747,6	2,5*	I. HH
	Garraioa			
Bidaiarien aireko garraioa (kop.)	806.042	16,8	Uzt.	
Salgaien itsas-garraioa (milioi tona)	2,6	-10,4	Uzt.	

DATU BAT

806.402

Aireportuko bidaiariak

LAN-MERKATUA

Erregistratutako langabezia

Uztailean 548 langabe gutxiago erregistratu ziren, hau da, hiletik hilera % 2,7 gehiago, eta 21.006 langabe daude udalerrian.

Langabezia-tasa igo egin da gizonen eta emakumeen artean, % 3,2 eta % 2,3, hurrenez hurren. Termino absolutuetan, hilabete amaieran 282 gizon langabe eta 266 emakumezko langabe zeuden.

Langabeziaren gorakada egon da adin-talde guztietan. Datu erlatiboek dagokienez, 25 eta 44 urte artekoen artean gehiago dira (% 5,5), eta horiek dira, halaber, langabezia absolutu gehien dutenak (392 langabetu). Gazteenen artean, igoera % 2,7koa da (49), eta igoera txikiena (% 0,9) 45 urte eta gehiagoko taldean gertatu da, 107 langabe gehiago dauden arren.

Sektoreka, Eraikuntza izan ezik (-% 0,3), hilabete honetan langabeziak gora egin du. Zerbitzuetan 317 langabe batu dira (% 2,2) industrian 25 eta lehen sektorean 10. Langabeziak bere horretan jarraitzen du lehen lana bilatzen dutenen artean (% 6,0 eta 200 lagun).

Benchmarkinga. Espainiako bost hiriburu handien taldean (G-5) erregistratutako langabezia-tasak % 2,0 egin du gora aurreko hilaren aldean. Bartzelona eta Valentzia dira gehien hazi direnak (+% 3,5 eta +% 3,3). Sevillak baino ez du behera egin langabeziak (-% 0,8).

Euskal hiriburu multzoan (G-3), erregistratutako langabezia-tasa % 1,7 igo da. Gasteizen +% 1,9 hazi da; Iruñean eta Donostian, +% 1,6 bi kasuetan.

Langabeziak gora egin du EAEn (% 1,3 hilabete artean). Lurraldeka: Araban % 1,6 igo da, Bizkaian % 1,4 eta Gipuzkoan % 1,0koa izan da.

Afiliazioa

Bilboko enpresetan 198.170 afiliatu zeuden uztaila amaieran, hau da, -% 0,9ko jaitsiera izan zen eta 1.872 enplegu gutxitu ziren ekainarekin alderatuta.

Araubide Orokorak 1.827 enplegu galdu ditu aurreko hilaren aldean; Langile Autonomoen Erregimen Bereziak ere 87 afiliazio gutxiago izan ditu. Igo egin dira Etxeko langileen afiliazioak (22) eta Nekazaritza eta itsasoko erregimen berezietakoak (20).

Erregistratutako langabeak

Hilabete artekoa Δ

Uztaila	21.006 pertsona
	% 2,7 ▲
Emakumeak	% 2,3 ▲
Gizonak	% 3,2 ▲

Benchmarkinga

Hilabete artekoa Δ

Bilbo	% 2,7 ▲
G-5	% 2,0 ▲
G-3	% 1,7 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Populazio afiliatua, araubideen arabera

Hilabete artekoa Δ

Uztaila	198.170 pertsona
	% 0,9 ▼
Araubide orokorra	% 1,1 ▼
Autonomoak	% 0,4 ▼
Etxeko langileak	% 0,3 ▲
Bestelakoak	% 2,8 ▲

Sektoreka, Zerbitzuetan jaitsi egin da afiliatuen kopurua: 1.884 gutxiago (-% 1,0); baita Industrian ere: 49 gutxiago (-% 0,6). Aitzitik, gora egin du Eraikuntzan (56 gehiago, +% 0,6), eta Lehen sektorean (5 gehiago, +% 1,5).

Zerbitzuen sektorean, datu absolutuetan, nabarmentzekoak dira Osasunaren eta Garraio eta Biltegiatzearen adarretan izandako igoerak (275 eta 127 afiliatu gehiago, hurrenez hurren). Enpleguak behera egin du, besteak beste, Hezkuntzan, Administrazio-jardueretan, Jarduera profesionaletan eta Aisialdi-jardueretan (-1.025, -371, -305 eta -270, hurrenkera horretan).

Urte artean, ordea, enpleguak % 1,4ko gorakada izan du, hau da, 2.762 afiliatu gehiago.

Afiliazioak gora egin du erregimen guztietan: % 1,4 Orokorrean, % 0,5 Autonomoetan, % 5,5 Etxekoan eta % 1,4 Nekazaritza eta Itsasoko berezietan.

Oharra: EJSN-2025 berria dela eta, aldaketa horrekin jarduera batzuen sailkapena aldatu egin da, eta horrek esan nahi du ezin direla alderatu aurreko kodetzearekin. Horregatik, +datak ezin izango du urte arteko aldaketarik txertatu 2027ko urtarrileko alertara arte.

Benchmarkinga. Espainiako bost hiriburu nagusien multzoan (G-5) afiliazioak -% 0,8ko jaitsiera izan du aurreko hilaren aldean. Taldeko hiri guztietan behera egin du afiliazioak. Ehunekotan, gehiena Bartzelona (-% 1,2).

G-3ko hiriburuen taldean, afiliatuen kopuruak, batera hartuta, behera egin du (-% 0,4). Gasteizen -% 2,0 egin du behera. Donostian eta Iruñean hazi egin da (+% 0,7 eta +% 0,3).

EAEn, oro har, afiliatuak -% 0,5 jaitsi dira hilabete artean. Enplegua jaitsi egin da lurralde guztietan: Arabak -% 1,8, Bizkaia -% 0,4 eta Gipuzkoak -% 0,1.

Kontratuak

Uztailean 12.881 kontratu formalizatu ziren Bilbon, hau da, urte arteko % 2,4ko jaitsiera eta 317 kontratu gutxiago. Urte artean gora egin dute gizonei egindako kontratuak, 134 gehiago, baina murriztu egin dira emakumei egindako kontratazioak (-451).

Kontratuak gazteenen artean bakarrik hazi dira, % 3,4, 135 gehiago. 25-44 urteko taldeak behera egin du urte arteko kontratazioan (-% 1,8; -106 kontratu), baita 45 urteko eta gehiagoko taldeak ere (-% 10,5; -346 kontratu). 25-44 urtekoen taldean erregistratu dira kontratazioen % 45,5, eta kontratu berrien % 31,6 gazteenei dagozkie, horiek baitira, gainera, urtetik urtera hobera egin duten bakarrik. Gainerako % 22,9a 45 urte eta gehiagokoekin erregistratzen da.

Afiliatuak, jarduera-sektoreen arabera

Hilabete artekoa Δ

Uztaila	198.170 pertsona
	% 0,9 ▼
Zerbitzuak	% 1,0 ▼
Eraikuntza	% 0,6 ▲
Industria	% 0,6 ▼
Lehenengo Sektorea	% 1,5 ▲

Benchmarkinga

Hilabete artekoa Δ

Bilbo	% 0,9 ▼
G-5	% 0,8 ▼
G-3	% 0,4 ▼

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Erregistratutako kontratuak

Urte artekoa Δ

Uztaila	12.881 pertsona
	% 2,4 ▼
Emakumeak	% 6,3 ▼
Gizonak	% 2,2 ▲
Lehenengo Sektorea	% 0,0 =
Industria	% 33,8 ▲
Eraikuntza	% 3,7 ▼
Zerbitzuak	% 3,8 ▼
Kontratututako pertsonak	% 2,6 ▲

Sektoreka, Industriako hazkundera nabarmentzen da (% 33,8) eta jaitsi egin dira Zerbitzuetako kontratuak (-% 3,8) eta Eraikuntzakoak (-% 3,7). Zerbitzuetan, eta datu absolutuetan, nabarmenak dira Ostalaritzako (338), Informazio eta komunikazioetako (161) eta arte-, jolas- eta entretenimendu-jardueretako (144) adarretan izandako igoerak. Beherakada handienak Etxekoetan (-503), Osasun- eta gizarte-zerbitzuetan (-400) eta Profesional, zientifiko eta teknikoetan (-174) gertatu dira.

Aldi baterako kontratuak guztizkoaren % 75,6 dira, eta pixka bat hazi dira, % 0,4. Mugagabeak % 10,3 murriztu dira. Uztailan 10.511 pertsona kontratatu dira, % 2,6 gehiago. Hau da kontratu-txandakatzearen indizea: pertsona bakoitzeko 1,22 kontratu.

MERKATARITZA

Txikizkako merkataritza

Bizkaiko Txikizkako merkataritzaren sektoreak urte arteko % 2,9ko hazkundera izan du salmentetan bigarren hiruhilekoan. Erregai-zerbitzuguneetan automobilgintzarako egindako erregaiaren salmenta kontuan izan gabe, salmentek % 2,7 egin dute gora.

Aurreko hiruhilabetekoarekin alderatuta, % 0,2 igo dira salmentak Bizkaian.

Kontuan hartutako sektore guztietan hazi dira, urte artean, salmentak: automobilgintzarako erregaiaren salmentak igo dira gehien (% 7,1); elikagaien salmentak % 3,8 igo dira eta gainerako produktuenak % 1,6.

Bizkaiko Txikizkako merkataritzako sektoreko landunek % 0,1 egin dute behera aurreko urtearekin alderatuta.

EAEn salmentek % 3,5 egin dute gora. Lurraldeka ere gora egin dute: % 4,2 Araban eta datu bera Gipuzkoan.

Txikizkako merkataritza, Bizkaia

Urte artekoa Δ

II. hiruhilekoa	116,2 adierazle orokorra
	% 2,9 ▲
- Elikadura	% 3,8 ▲
- Gainerako produktuak	% 1,6 ▲
- Automobilgintzarako erregaia	% 7,1 ▲
Zerbitzugunerik gabe	% 2,7 ▲
Lanean ari diren langileak	% 0,1 ▼

TURISMOA

Oro har, turismo-establezimenduetan (hotelak, apartamentu eta ostatu turistikoak), uztailan 163.352 sarrera eta 332.097 gaualdi izan dira Bilbon (urte batetik bestera % 5,1 eta % 9,8, hurrenez hurren). Batez besteko egonaldia 2,03koa izan da, 2025eko uztailan (1,95) baino handiagoa.

Bilboko hotel-establezimenduetan 256.479 ostatu-gau erregistratu dira uztailan, hau da, % 5,9ko hazkundea egon da urtetik urtera (14.379 ostatu-gau gehiago).

Bidaerien sarrerak ere gora egin du, baina gutxiengo % 4,8. Urtetik urtera gutxitu egin da estatuko bidaerien presentzia: hil honetan -% 4,8 jaitsi dira eta sarrera guztien % 34 dira. Atzerriko bisitariek hobera egin dute hirian, % 10,5 hazi baitira, eta hiriko hoteletan ostatu hartu duten bisitariak % 66 dira.

Hiriko hoteletan ostatu hartutako bidaieriei dagokienez, Madrilgo Erkidegokoak izan dira ugariak (% 26,2), gero Kataluniakoak (% 14,3), EAEkoak (% 12,8) eta Andaluziakoak (% 9,1). Atzerriko turismoari dagokionez, jatorri hauetatik datozenak izan dira ugariak: AEB (% 11,0), Erresuma Batua (% 10,1), Frantzia eta Italia (% 8,9 bi kasuetan) eta Alemania (% 8,3).

Batez besteko egonaldia 1,99 egunekoa izan da, duela urtebete baino zertxobait handiagoa (1,97).

Hotel-establezimenduen emandako errentagarritasun datuen arabera, batz besteko tarifek eta gela eskuragarriko diru-sarrerak gora egin dute, 140,45°eurotaraino eta 120,23°eurotaraino, hurrenez hurren.

Apartamentu turistikoak establezimenduen¹ 21.721 sarrera erregistratu dituzte guztira uztailan, hau da, % 4,8 gehiago, eta 52.817 gaualdi, eta 2025eko uztailan baino % 33,7 gehiago.

Uztailan, 12.780 sarrera eta 22.801 gaualdi erregistratu ziren turismo-aterpetxeetan², % 9,7 eta % 9,5 gehiago urte batetik bestera, hurrenez hurren.

¹ Apartamentu turistikoak: "gutxienez logela, bainugela, egongela-jangela eta sukaldearekin osatutako ostatu-unitatez osatutako establezimenduak, multzo independente gisa eskainita eta enpresa-ustiapeneko unitatearen printzipioaren arabera kudeatuta, modu profesionalean eta ohikoan aldi baterako ostatua ematera bideratzen direnak, egoitza aldatu gabe". 198/2013 DEKRETUA, apirilaren 16koa, apartamentu turistikoak arautzen dituenak. (Ez dira sartzen erabilera turistikorako etxebizitza partikularrak).

² Turismo-aterpetxeak: "Turismo-aterpetxeak dira, ohikotasunez eta modu profesionalean, ordainsari baten truke, plaza bakoitzeko geletan ostatu-zerbitzua eskaintzen duten establezimenduak; gehienbat gela kolektiboetan edo edukiera anitzeko geletan, eta, hala badagokio, jatetxe- edo ostalaritza-zerbitzu osagarriekin edo horiek gabe. Halaber, aisialdiko, hezkuntzako, kirolko nahiz bestelako jarduerak ere eskain ditzakete".

Establezimendu turistiko hartzaileak

GUZTIRA

Urte artekoa 

Uztaila

Ostatu-gauak, guztizkoak	332.097 ostatu-gauak % 9,8 
Sarrerak, guztira	163.352 sarrerak % 5,1 
Egonaldia, batez beste	2,03 ostatu-gau/bidaiariko

Hotel establezimenduak

Urte artekoa 

Uztaila

Ostatu-gauak	256.479 ostatu-gauak % 5,9 
3 izar eta gehiagoko hotelak	% 4,2 
Gainerako hotelak eta pentsioak	% 11,3 

Bidaerien sarrerak	128.851 sarrerak % 4,8 
Espainiakoak	% 4,8 
Atzeritarrak	% 10,5 
Egonaldia, batez beste	1,99 ostatu-gau/bidaiariko

Hotelen errentagarritasunaren adierazleak

Eguneko batez besteko tarifa logelako (€)	% 9,8 
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	% 13,7 

Apartamentu turistikoak

Urte artekoa 

Uztaila

Ostatu-gauak	52.817 ostatu-gauak % 33,7 
Bidaerien sarrerak	21.721 sarrerak % 4,8 
Egonaldia, batez beste	2,43 ostatu-gau/bidaiariko

Turismo-aterpetxeak

Urte artekoa 

Uztaila

Ostatu-gauak, guztizkoak	22.801 ostatu-gauak % 9,5 
Sarrerak, guztira	12.780 sarrerak % 9,7 
Egonaldia, batez beste	1,78 ostatu-gau/bidaiariko

Benchmarkina. Euskal hiriburuak aintzat hartuta (G-3), hoteletako ostatu-gauen bilakaera positiboa izan da, % 2,9 hazi da urtetik urtera. Iruñean % 12,4 handitu da eta Donostian % 2,9. Gasteizen -% 5,9 jaitsi da.

Nabarmen hobetu dira EAEn (% 6,7), Bizkaian (% 10,3) eta Gipuzkoan (% 5,6). Araban bakarrik galdu dira gualdiak (-% 1,5)

Bestalde, Estatuko hiriburu nagusietan (G-5) ostatu-gauak % 0,7ko gorakada izan dute. Madrilan (-% 2,1) eta Zaragozan (-% 5,4) izan ezik, ostatu-gauak gora egin dute taldeko hiriburu guztietan. Valentziak izan du igoerarik handiena: % 11,8.

Benchmarkinga

Urte artekoa Δ

Bilbo	% 5,9	▲
G-5	% 0,7	▲
G-3	% 2,9	▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

EKONOMIA ETA ENPRESA

Etxebizitza-saleresketa

Bilboko etxebizitza berri libreen transakzioen metro karratuko batez besteko prezioa 5.272,2 eurokoa da, Eusko Jaurlaritzak 2026ko lehen hiruhilekoari lotuta egin duen Etxebizitzaren Salerosketaren Estatistikaren arabera. Horrek aurreko hiruhilekoan baino % 5,1 garestiagoa izatea dakar, eta urte arteko terminoetan % 27,5eko igoera izan du.

Erabilitako etxebizitzaren transakzioetan metro koadroko prezioak % 2,5 egin du gora laugarren hiruhilekoaren aldean, eta 3.747,6 eurokoa da. Urtetik urtera ere gora egin du erabilitako etxebizitzaren prezioak: % 19,5.

Bilboko etxebizitza libre berrien salerosketa-transakzioen batez besteko prezio osoa, urteko lehen hiruhilekoan, 511.304 euro izan da, eta etxebizitza erabiliarena, 308.896 euro.

Etxebizitza berriaren batez besteko prezioa (m²)

I. hiruhilekoa	5.272,2 €/m ²
Hiruhileko arteko Δ	% 5,1 ▲
Urte artekoa Δ	% 27,5 ▲

Bigarren eskuko etxebizitzaren prezioa (m²)

IV. hiruhilekoa	3.747,6 €/m ²
Hiruhileko arteko Δ	% 2,5 ▲
Urte artekoa Δ	% 19,5 ▲

GARRAIOA

Aireko garraioa

Bilboko aireportuak 806.402 bidaiari erregistratu ditu uztailean (iritsierak eta irteerak); beraz, urte artean % 16,8ko igoera izan du (aurreko urteko hilabete berean baino 116.201 bidaiari gehiago). Emaizta horiei esker, hilabeteko daturik onena lortu du martxan jarri zenetik.

Merkataritza-eragiketetan, hegaldi nazionaletan bidaiari kopuruak % 6,6 egin du gora: 23.425 bidaiari gehiago urte batetik bestera. Nabarmenezkoa da nazioarteko hegaldietan bidaiari kopuruak gora egin duela, % 27,7 igo baita eta 92.504 bidaiari gehiago izan baititu.

Aireko garraioa

Urte artekoa Δ

Uztaila	806.402 bidaiari
	% 16,8 ▲
Espainiakoak	% 6,6 ▲
Nazioartekoak	% 27,7 ▲
Salgaiak (kg)	% 10,2 ▼
Hegaldiak	% 14,9 ▲

Hilean operatutako hegaldiek % 14,9 egin dute gora, eta, iritsieren eta irteeren artean, 5.739 izatera iritsi dira. Baina jaitsi egin dira, aldiz, haietan garraiatutako salgaiak (-%10,2).

Urtarriletik uztailera, 4.367.752 bidaiari metatu dira, aurreko urteko aldi berean baino % 9,6 gehiago, hau da, 381.563 bidaiari gehiago.

Benchmarkinga. Espainiako bost hiri nagusien barruan (G-5), urtetik urtera % 5,9ko igoera kontabilizatu da bidaiariei dagokienez. Aireportuen artean, Valentziakoa izan da igoera handiena izan duena (% 11,1), eta Madrilgoa, berriz, txikiena izan duena (% 4,8). Zaragozak soilik egin du behera (-% 11,6).

G-3 multzoan, bidaiarien zirkulazioari begira, urtetik urtera % 7,0 igo da. Gasteizek % 19,5 egin du gora, eta Donostiak % 3,6. Iruñeak % 2,0 egin du atzera.

Itsas garraioa

Bilboko Portuak 2,6 milioi tonako trafikoa izan zuen uztailean, hau da, -% 10,4 gutxiago aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuta.

Solteko salgai likidoen trafikoa (petrolio eta gasa, funtsean) portuan uztailean kudeatu diren salgaien % 62,7 izan da, eta -% 11,2ko jaitsiera erregistratu du. Solteko gaien trafikoa -% 24,1 jaitsi da (zerealak, soja eta ikatza, besteak beste), eta salgai orokorra -% 1,0 jaitsi da.

Uztailean 37.254 itsas bidaiari erregistratu dira 10 itsas bidaiatan.

Metatutako datuari dagokionez, urtarriletik uztailera, 19,9 milioi tona lortu dira portuko trafikoan, aurreko urteko aldi berean baino % 8,8 gehiago.

Benchmarkinga

Urte artekoa Δ

Bilbo	% 16,8 ▲
G-5	% 5,9 ▲
G-3	% 7,0 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Itsas garraioa Uztaila

Urte artekoa Δ

Portuko trafikoa	2,6 milioi tona. % 10,4 ▼
Bidaiarien garraioa	58.537 bidaiari % 0,7 ▲
Gurutzaldiko bidaiariak (kop.)	37.254

ADIERAZLEEN KOADROA


	Azken datua Δ	Urte arteko aldakuntza (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
Lan-merkatua			
Erregistratutako langabeak (kop.)	21.006	2,7*	Uztaila 2026
Afiliatutako biztanleak (kop.)**	198.170	-0,9*	Uztaila 2026
Erregistratutako kontratuak (kop.)**	12.881	-2,4	Uztaila 2026
Biztanleria aktiboa (milaka)	173,3	-2,1*	2026 II. HH
Biztanleria okupatua (milaka)	157,7	-3,7*	2026 II. HH
Biztanleria langabetua (milaka)	15,6	17,3*	2026 II. HH
BAIko langabezia-tasa (%)	9,02	1,53 ep.*	2026 II. HH
Merkataritza			
Kontsumo-prezioen indizea (KPI)***	104,4	0,3*	Uztaila 2026
Afiliatuak**	19.583	-0,3*	Uztaila 2026
Txikizkako merkataritza-salmenta (indizea)***	116,2	2,9	2026 II. HH
Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak	104,3	2,9	Ekaina 2026
Turismoa			
Hotel establezimenduak			
Bidaia-erien sarrerak	128.851	4,8	Uztaila 2026
Ostatu-gauak	256.479	5,9	Uztaila 2026
Batez besteko egonaldia (ostatu- gauak/bidaia-riak)	1,99	1,0	Uztaila 2026
Hotelen okupazio maila (%)	76,8	3,6 e.p.	Uztaila 2026
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	120,2	13,7	Uztaila 2026
Apartamentu turistikoak			
Bidaia-erien sarrerak	21.721	4,8	Uztaila 2026
Ostatu-gauak	52.817	33,7	Uztaila 2026
Batez besteko egonaldia apartamentuetan	2,43	27,9	Uztaila 2026
Ekonomia eta enpresak			
Bizkaiko BPGd-a	109,6	0,5*	2026 II. HH
Industria-produkzioa (indizea)***	113,3	-0,5	Ekaina 2026
Merkataritza-sozietate berriak	267	15,6	2026 II. HH
Zerbitzuen salmentak (indizea)***	122,2	1,5	2026 II. HH
Etxebizitza librearen batez besteko prezioa (€/m ²)	5.272,2	5,1*	2026 I. HH
Etxebizitza erabiliaren batez besteko prezioa (€/m ²)	3.747,6	2,5*	2026 I. HH
Etxebizitzaren alokairuaren prezioa (€/hilabete)	971,3	6,6	2025
Garraioa			
Bidaia-erien aireko garraioa (kop.)	806.402	16,8	Uztaila 2026
Hegaldiak	5.379	14,9	Uztaila 2026
Salgaien itsas garraioa (milioi tona.)	2,6	-10,4	Uztaila 2026
Hiri- eta metropoli-garraioa (milioi bidaiari)	137,8	9,5	2025

* Aurreko aldiarekiko aldakuntza-tasa. ** Enpresen arabera, Bilbon. *** Bizkaia-ri dagokiona.


Iturriak: Guk egina, datu hauetan oinarrituta: Eustat, EIN, Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioa, Eusko Jaurlaritza, Lanbide, SEPE, Merkataritza Erregistroa, AENA, Estatuko Portuak, Bizkaiko Foru Aldundia eta Cotrabi.

GRAFIKOAK


Erregistratutako langabezia




Afiliatuak




Aireportuko bidaiariak



Txikizkako merkataritza



Hoteletako ostatu-gauak



Portuko trafikoa

